

KONTSULTAGUNEAK INTERNETEN.

Sareari euskara teknikoaz galdetzka

Ane Etxabe Arruti

Euskara Juridikoa I - UPV/EHU

SARRERA

Euskararen normalizazioarekin alde batetik, eta interneten garapenarekin bestetik, azken urteotan hizkuntzaren inguruko zalantza eta galderak modu biziagoan ebazteko baliabide erabilgarriak sortu dira, erakunde publikoen gidaritzapean batzuetan, eta arlo pribatutik sortuak besteak. Ezinbesteko guztiak ere zuzenbidean lanean dihardugunon ikuspegitik.

Lan honen helburua interneten euskara juridikoaren inguruan topatu ditzakegun baliabideen aurkezpen eta sistematizazioa da, bakoitzaren nondik norakoa azaldu eta euskara tekniko-juridikoaren inguruko zalantza bakoitzarentzat erabilgarriena hautatzeko arrastoak emanez; zalantzaren kausa edo zalantzadunaren izaera kontuan izanda.

Lanak izaera deskriptiboa du, ezer baino gehiago, xedea baliabide hauen izaera eta erabilera azaltzea duelako. Baliabide bakoitzaren azalpenaren ostean, balorazio subjektibo txiki bat egin da, erabiltzaile gisa izan ditugun esperientzia eta sentsazioen adierazle.

1.DUDANET

<http://www.ivap.euskadi.net/r61-v50001x/es>

Zer da DUDANET?

DUDANET IVAPek herritar ereri zabalduko zerbitzu linguistika da, administrazio eta zuzenbidearen inguruko zalantza teknikoak argitze aldera. DUDANET ez da hizkuntza zerbitzu automatikoa, hots, sarean berehala kontsultatzeko hizkuntza zerbitzua, baizik eta euskara juridiko-administratibean aditu den talde bati gure zalantzak plazaratu eta honek argituko ditu, kontsulta-bide modalitate honek dakartzan abantaila eta desabantailekin.

IVAPez askotan hitz egiten dugun arren, komeni da bere izaera azpimarratzea. IVAP bezala ezagunago den arren, HAEE (Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea euskaraz), Eusko Jaurlaritzari atxikitako erakundea da, eta bere helburuen artean erakunde publikoetan euskararen normalizazio eta erabilera sustatzea da.

Zertarako erabili DUDANET?

DUDANET euskara juridiko-administratiboko zalantzak argitzeko baliabidea da, azaldu dugun moduan. Beraz, arlo horietako hizkera eta terminologiaren inguruko zalantzak argitzen saiatuko da, ortografia, estilo etab.en inguruan. Muga hauetatik at dagoen kontsulta oro baztertu egingo da, batez ere itzulpen-zerbitzu gisara erabiltzen bada (termino soilen inguruko galdeketa egin liteke; ez ordea testu osoen ingurukoak; horretarako hizkuntza zerbitzuetara jo beharko duelarik zalantza duen hark)

Nola erabili DUDANET?

Galdera-erantzun zerbitzu bat da, izatez honakoa, eta beraz zalantza kasuan (aldiko galdera bat) luzatu beharko zaio aditu taldeari. Galdera bota aurretik ordea, datu-base zabalean kontsultatu beharko du interesatuak, adituei lana errazteko eta zalantza berdinak behin eta berriz errepika ez daitezen. Oinarrizko arau batzuk ere kontuan izan beharko dira, arazo terminologikoen aurrean testuingurua lagungarri balitz modu egokian adieraztea kasu.

Balorazioa

DUDANET txoko egokia da administrazio eta lege hizkuntzaren inguruko zalantzak argitzeko; bai administrazio langile diren horientzat (badirudi printzipioz

sektore horri bideratutako baliabidea dela), baita edozein herritarrentzat ere. Datu-base zabala du, baina bilaketa erremintaz ezin gauza bera esan, oinarri-oinarrizkoa izaki ez baitio interesatuari bere zalantzaren inguruko bilaketa lana errazten. Bilaketa aurreratua egiteko aukerarik eman gabe, nahiko nahasia eta zaila da aurkitu nahi dena bilatzea.

1.EHULKU

<http://www.ehu.es/ehulku/>

Zer da EHULKU?

EHULKU, Euskal Herriko Unibertsitateko langile eta irakaslegoaren eskura jarritako zerbitzu linguistikoa da. Hala ere, eta baliabidearen aurkezpen erriak EHULKU langileen kolektibora mugatzen duen arren bere zerbitzua emateko eremua, galdetegira jotzean ikasleei ere luzatzen die EHULKU eskua, eta beraz, unibertsitate arloan suertatutako edozein hizkuntza-arazoei irtenbidea ematea du xede EHULKU. Honek, ahisku izaerako erantzuna jaso du galdera burutu duen hark, eta erantzun argirik ez den kasurako herren inguruko eztabaida piztearen aringarria.

Zertarako erabili EHULKU?

Kasu honetan, baliabidearen erabiltzaileak zehaztuagoak daude: unibertsitate publikoan lanean dabiren ere, irakasle eta gainerako pertsonalari zuzendutako zerbitzua da. Beraz irakasleek irakaskuntzan eta gainentzeko langileek (baita ikasleek ere, esan dugunez) egunerokotasunean topatutako edozein galdera erantzuteko aukera ematen du. DUBALETEN kasuan gertatu moduan, honakoan ere baliabide honen arduradunek itzulpenen inguruko kontsultak enartzen ez dituztela hartarazten digute.

Nola erabili EHULKU?

EHULKU erabiltzeko oinarriko gomendioak bertatik ematen dizkigute; galderaren formulazio egokia eta beharrezko informazioa modu gardenean azaltzea, edota galdetu aurretik datu-basean kontsulta egitea, galdera bera edo zalantza aseko duen antzeko bat baden ikusteko.

Hiru bloke handitan antolatuta daude kontsultak.

(1)Galdera-erantzunak: Bertan, interesatuak bere galdera luzatu ahal izango du, baina aurretik datu-basean kontsulta eginaz, ekonomia arrazoiengatik. Bilaketa hau modu aurreratuan egiteko parada ematen digu erreminta honek, gako-hitz, gai edota sailaren arabera bilatzeko aukeraz. Galdera egiteko orduan ere erraztasunak ematen ditu, identifikazio eskatuz bai, baina beste baliabideetan

bezainbeste datu eman beharrik gabe.

(2) Testu-zuzenketa: Testu edota esaldien zuzenketara (ez itzulpena) bideratutako kontsulten saila da bigarrena. Askotan hitz zehatz baten inguruko zalantzak izaten dira sail honetara bideratuak.

(3) Aztergaiak: Atal hau, hirugarrena, hutsik topatu dugu.

Balorazioa.

Ehulku baliabide osoa da, ondo antolatua eta, dirudienez, gutxi aprobetxatua. 2010. urtean hamabost galdera inguru soilik jaso ditu; eta honek (ziur gaude) gehiago izango du ezjakintasunetik zalantza gabeziagatik baino. Ez dakigu zenbaterainokoak diren EHULKUREN baliabide pertsonalak, baina burutzen den lana txukuna da eta unibertsitate arloan euskara juridikoaren inguruko erantzun zuzen eta praktikoa bilatzeko tresna ezin hobea da.

3.JAGONET

<http://www.euskaltzaindia.net/jagonet>

Zer da JAGONET?

Honakoa ere kontsulta-zerbitzu tekniko bat da, profesionalei bideratua, baina oraingo honetan Euskaltzaindiaren menpekoa. Beraz, interesatzen zaigun arlo teknikoko kontsulta egin ahal izango da, Euskaltzaindiako arauen arabera erantzun bermatua jasoz. Printzipioz, beste baliabideetan bezala datu-basean arakatu beharko dugu gure zalantza zuzenean Euskaltzaindiari adierazi aurretik.

Nola erabili JAGONET?

JAGONET berak ematen dizkigu zerbitzua erabiltzeko pistak:

- (1)Lehenik, Euskaltzaindiak hartutako erabakien atalean topatzea gomendatzen zaigu. Bertan, 1994. urtetik aurrera Euskaltzaindiak emandako arauak biltzen dira sailka banatuak (aditzen ingurukoak, ahoskerari buruzkoak...) Gainera, Hiztegi Batua kontsulta liteke, Euskaltzaindiak hiztegi alorrean hartutako erabaki guztiekin, eta azkenik lizentzia, pertsona-izen, deitura eta leku-izenen bilduma.
- (2)Aurreko arau multzoan gure zalantzaren muinari erantzunik ezin badugu topa, galde-erantzunen datu-basera joko genuke. Bertan, erabat sistematizatuak, ordu arte edozein lagunek zuzendutako galderak biltzen dira, gainera, nahi izanez gero, deskargatu daitekeen artxibo batean.
- (3)Behin datu-basean arakatu ostean erantzunik ez badugu lortu, orduan galdera luzatuko genuke, Galdelekua izeneko atalaren bidez.

Zertarako erabili JAGONET?

JAGONET edozein motatako zalantza linguistikoei erantzuna topatzeko baliabide egokia da; tresna berak eskaintzen digun sistematizazio erosoagatik alde batetik, eta bestetik Euskaltzaindiaren arauen arabera erantzun zuzena lortuko dugulako. Beraz, zalantza teknikoak argitzeko txoko bikaina dugu.

Balorazioa

JAGONETEN bilaketa bat egitean, ezer baino lehen erabateko sistematizazioa topatuko dugu. Beraz, ez da zaila izango zalantza hori aurrez beste norbaiti suertatu eta galdera gauzatu badu topatzea. Galde-erantzunen datu-basea eroso eta txukuna da, eta beraz, bilaketa arrunt bidez edota sailka banatuta daudenez, erraz topatzeko moduan izango gara.

1.AZPIDAZKI

<http://www.ehu.es/azpidazki/>

Zer da AZPIDAZKI?

Euskal Herriko Unibertsitateak modu arin eta erabilgarrian, bertako administrazio eta zerbitzuetako pertsonalari euskararen inguruko, gomendio, arau eta baliabideak eskaintzen dizkion kontsultagunea da. Bertako langileei zuzendua egoteaz gain, zalantzak argitu nahi dituen orori laguntzeko ere atearik zabalik uzten ditu.

Zertarako erabili AZPIDAZKI?

Azpidazkiren muina administrazio-hizkeraren inguruko baliabide praktikoak eskaintzea da. Horregatik, antolaketa ere modu argian egina dago orrialdean. Hiru zati nagusi ditu:

- (1)“Jakiteko” izeneko arloan, euskara zuzentasunez erabiltzeko oinarritzko arau eta gramatika azaltzen da, modu argi eta praktikoan.
- (2)“Esaldiak” atalean berriz, administrazio arloan baliagarri izan dakizkiguen esaldi eta agurrak zerrendatzen dira.
- (3)“Idazki Ereduak” izendatutako atala da, beharbada, AZPIDAZKIREN atalik baliagarriena. Izan ere bertan dokumentu, txantilo edota kartel ereduak topatuko ditugu, euskara hutsean edo elebitan. Ikuspegi praktikotik begiratuta interesgarrietakoa izan daiteke.

Nola erabili AZPIDAZKI?

AZPIDAZKIK euskara zuzentasunez erabiltzeko laguntza eskaintzen du. Laguntza hori, alde batetik, zuzenean baliabidearen orrialdean kontsulta daiteke, aipatutako hiru ildoetatik. Bestetik, gure zalantza eduki horrek asetzen ez badu, zuzenean Argitoki izeneko ataletik galdegin diezaiekegu baliabide honen arduradunei.

Balorazioa

AZPIDAZKIN beste hainbat kontsultagunetan bila dezakegun zenbait informazio badago, baina bada bereziki bertan bakarrik topatu dugun zenbait informazio; arlo praktikotik interes berezia hartzen duten txantiloak dira horiek. Beraz, administrazioan (batez ere hezkuntza administrazioan) lanean diharduten horientzat pentsatutako atal hau izango da kontsulta-bide honen gauzarik azpimarragarriena.

